**EUROPAKO BATASUNA.**

# EA: «Aznarrek eskualde erreferentzia oro baztertu nahi du»

## EBko lehendakaritzari «presio egiten» ari zaiola salatu du Begoña Lasagabasterrek

Julen Etxeberria | **DONOSTIA**

Europako Batasuneko estatu eta gobernu buruek gaur eta bihar Laekenen egingo duten goi bileraz duen jarrera azaldu zuen atzo Eusko Alkartasunak. Begoña Lasagabaster diputatu eta Nazioarteko idazkaria eta Onintza Lasa legebiltzarkide eta Komunikazioko idazkaria izan ziren agerraldian.

Lasagabasterrek salatu zuenez, «Jose Maria Aznar presio gogorra egiten ari da goi bileran eztabaidatuko den txostenean eskualdeen inguruko erreferentzia oro baztertzeko». EAko diputatuak «onartezintzat» jo zituen presio horiek, eta Aznarri exijitu zion «herritarrei azaltzeko, Espainiako gobernuburuak Estatutuarekiko eta euskal erakundeekiko duen leialtasun maila ezagutu dezaten».

Lasagabasterrek Aznarri galdetu zion nola uler daitekeen Autonomien Estatua, EAEko Estatutua eta Kontzertu Ekonomikoa defenditzen dituela esan, eta «gero Espainiako Estatuko ordenamendu juridikoak dioena alde batean utzi, eta gardentasunik gabe eta gauekotasunaz presio horiek egitea».

EAko diputatuak azpimarratu zuenez, «Guy Verhofstadt EBko lehen ministroak prestatu duen txostenean askotan aipatzen da eskualde hitza, baita eskualde errealitatea dagoela ere. Halaber, goi bileran behatzaile gisa izango diren Erregioen Batzordeko kideak bitik seira handitzea proposatzen du. Aznarrek hori urratu nahi du».

### Europan eskualdeek leku gehiago izateko eskaera

Onintza Lasak, aldiz, jakinarazi zuen Europako Aliantza Librea (ALE) alderdi politiko europarrak —EA bertako kide da— bilereko parte-hartzaileei idatzi bat helarazi diela, estaturik gabeko nazioen «aitorpen osoa eta justua» eskatzeko. Eusko Jaurlaritzak ere Espainiako Gobernuko eta EBko hainbat erakunderi idatzi bat helarazi zien atzo Europan eskualdeek leku gehiago izan dezaten eskatuz.

**ETA-REN AGIRIA.**

# ETAri «zinismoa» egotzi diote, eta ohartarazi Frantziaren jazarpena ez duela eragotziko

Erredakzioa | **DONOSTIA**

ETAk jendarmeekin izandako enfrentamenduak «gogoz kontrakoak» izan direla adieraziz ateratako oharrari erantzun zioten atzo zenbait alderdi eta erakundek. Josu Jon Imaz Jaurlaritzako eledunak «zinismoa» eta «koherentzia eza» leporatu zion ETAri, eta erantsi haren agiriek garrantzirik ez dutela, «armak uzten dituela esan artean».

Iñaki Anasagastik (EAJ) esan zuen ETAk jendarmeak ez, baina ertzainak bai hil nahi dituela, eta «beldurtuta» behar dutela etakideek, Frantzia beren aurka «modu zuzenean» ariko delako.

Begoña Erraztik (EA) esan zuen hilketarik ezin dela justifikatu, izan jendarmea, ertzaina, guardia zibila edo herritar soila. «Zinikoa da 'jendarmeekin ez genuen sartu nahi' esatea».

ETAk jendarmeei eta ertzainei «tratu desberdina» ematea «itzelezko kontraesana» dela adierazi zuen Antton Karrerak (EB-IU), eta Frantziak presioa gogortzea eragotzi nahi duela.

PPk eta PSE-EEk, halaber, ETAk Frantziaren jazarpena ez duela galaraziko nabarmendu zuten. Rodolfo Aresek (PSE) eta Leopoldo Barredak (PP) esan zuten hori zela agiriaren xedea, baina hutsean geratuko dela.


# *Oharra*

**Gure instalazioak hobetzeko egin beharreko lanak direla eta, eten egingo da elektrizitatearen hornikuntza. Lanak bukatu ondoren, berriz jarriko da martxan zerbitzua, aurrez jakinarazi gabe.**

***Abenduaren 16a*** — ***AZKOITIA***

***8:30etik 12:30era***

Azpeitia 1, 2, 3; Trenbidearen zumardia 2 eta 4; Donostia 1, 3, 5; Tolosa 1, 2 eta 3; Altamira auzoa 11; Bizenta Mogel 1, 2, 3; Azkoitiko Zalduntxoak 1, 2, 3, 4; Astarbe auzoa 12, 13, 15, 17, 18, 20, 21, 22, 24, 25, 26, 27, 28, 29, 30, 31, 32, 1.050; Loiola sakabanatua 105; Martires auzoa 5, 7, 8, 9, 10, 32, 1.035; Txalon Erreka 1, 2, 3, 4, 6, 8, 10, 12.

***Abenduaren 16a*** — ***USURBIL***

***9:00etatik 10:00etara***

Legarda k/ 1, 6, 8, 11; Errotaberri 1, 3, 5, 7, 9, 13, 1.050; Zelai Aundi 1, 33; Aitzezarra 2; Erribera 20.

***Abenduaren 16a*** — ***ARRASATE***

***9:00etatik 12:00etara***

Auzoak: Garagartza, Uribarri, Azkarruntz, Istizabal, Gesalibar, Udala.

***Abenduaren 16a*** — ***ELGOIBAR***

***9:00etatik 13:00etara***

Xixilion k/ 1, 2, 4.

***Abenduaren 17a*** — ***ZARAUTZ***

***9:00etatik 10:00etara***

Asti auzoa 615, 616.

***Abenduaren 18a*** — ***ZARAUTZ***

***8:30etik 9:00etara eta 14:30etik 15:00etara***

Asti auzoa 601, 602, 603, 604, 605, 606, 607, 608, 609, 610, 611, 612, 613, 614, 615, 617, 620, 622, 628, 629, 630, 632, 1.005, 1.610, 1.630.

***Abenduaren 18a*** — ***EIBAR***

***13:00etatik 15:00etara***

Estaziño k/ 4, 5, 6, 7, 8, 10, 11, 12, 13, 14, 15, 16; Bittor Sarasketa 1, 2, 4, 6, 8, 10, 12, 14; Arragueta 7, 19, 25, 27; Ibarkurutze 3; Pagaegi 8.

***Abenduaren 19a*** — ***ALEGIA***

***8:00etatik 8:15era eta 12:30etik 12:45era***

San Joan k/ 1, 3, 4, 5, 6, 7, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 16, 18, 19, 21, 22, 23, 24, 25, 27, 28, 29, 30, 31, 32, 33, 34, 35, 36, 38, 39, 41, 42, 43, 44, 45, 46, 47, 49, 50, 51, 52, 53, 55, 57, 59, 60, 61, 63, 64, 65, 66, 67, 69, 71, 73, 75, 77, 79, 81, 83, 85, 87, 91, 93, 95, 1.026, 1.056; Aralar bidea 2, 4; Bidebarrieta 1, 2, 3, 4, 5, 7, 9, 13, 15, 17, 19, 21; Irun-Madril errep. 20; Erbeta 7, 11.

***8:00etatik 12:30era***

Auzo Txikia 26, 27, 29, 30 31; Irun-Madril errep. 23, 24, 25; Langaurrealdea sakabanatua 33, 34; Errota auzoa 1, 2, 3, 4, 5; Errotaldea sakabanatua 11, 12, 14, 16, 19; Beistin auzoa 2, 3, 4, 7; Larraitz auzoa 1, 2, 3, 4, 5, 7, 9, 11, 13, 15, 17, 19, 21, 23, 25, 27, 29, 31, 33, 35, 37, 39, 41; Aralar bidea 8.

***Abenduaren 19a*** — ***ALTZO***

***8:00etatik 12:30era***

Altzo Azpi 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 15, 17, 18, 1.003; Altzo Muino 59, 60, 61, 62, 63, 70, 71, 72, 73, 74, 75, 76, 77, 78, 79, 81, 82, 84, 85, 86, 87, 88, 95, 96, 105, 106, 114, 115, 117, 137, 139, 1.088; Santa Barbara pasealekua 1, 2, 3, 4; Zuaznabar aldea 19, 20, 21, 22, 23, 24, 25, 26, 27, 28, 29, 30, 31, 32; Intxausti auzoa 43, 44, 45, 47, 49, 51, 52, 53, 54, 55, 56, 57; Egileor auzoa 64, 65, 66, 67, 68, 69, 118; Txaparre auzoa 89, 90, 91, 92, 93, 94, 100, 140.

***Abenduaren 19a*** — ***ORENDAIN***

***8:00etatik 12:30era***

Baldanalde k/ 10, 19.

***Abenduaren 19a*** — ***ORMAIZTEGI***

***9:00etatik 11:00etara***

Ormaiztegi sakabanatuta 8, 9, 22; Muxika Egurastokia 8, 9; San Andres 8; Zumalakarregi etorbidea 2, 4, 6, 8, 10, 14.

***Abenduaren 19a*** — ***OIARTZUN***

***9:00etatik 11:00etara***

Elorrondo k/ 1, 2, 4, 6, 8, 10, 12, 14, 16, 18, 20, 22; Manuel Lekuona etorbidea 4, 5, 6, 7, 8, 10, 12, 14.

***Abenduaren 21a*** — ***ZARAUTZ***

***8:30etik 9:00etara eta 14:30etik 15:00etara***

Asti auzoa 601, 602, 603, 604, 605, 606, 607, 608, 609, 610, 611, 612, 613, 614, 615, 617, 620, 622, 628, 629, 630, 632, 1.005, 1.610, 1.630.

***Abenduaren 21a*** — ***OIARTZUN***

***8:30etik 9:30era eta 14:30etik 15:30era***

Euskal Herria plaza 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8; Landetxe plaza 1, 2, 3, 4, 5, 6; Jon Oñatibia etorbidea 1, 2, 3, 5, 6, 8; Done Eztebe plaza 1, 3, 4, 5, 6, 7, 9, 10, 11, 12; Aialde 1, 2, 3, 4, 5, 6, 9, 11, 13; Frailen bidea 1, 2, 4, 10, 12; Donibane 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11; Legarrea 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 10, 11, 12, 14, 18, 22, 28, 30, 32, 34, 36; Gurutze bidea 2; Putxutxerreka 1, 2, 3, 4, 77, 1.001, 1.005; Mendiburu 1, 3, 4, 5, 6, 8, 9, 10, 11, 12, 14, 15; Eliz plaza 1; Rafael Pikabea etorbidea 5, 7, 10; Iparralde etorbidea 3, 5, 7, 9, 11, 13; Manuel Lekuona etorbidea 1, 3, 10; Madalensoro plaza 1; Kontzejuerreka 2, 4, 6.

***Abenduaren 21a*** — ***DONOSTIA***

***8:30etik 9:30era eta 14:30etik 15:30era***

Uba bidea 54.

*Gure bezeroei arazoak barkatzeko eskatzen diegu, eta eskerrak ematen dizkiegu beren laguntzagatik.*

IBERDROLA